



**ERANTZUKIZUN PENALA  
PREBENITZEKO CLECEREN  
PRINTZPIO ZUZENDARIAK**

## 1. Xedea

Clece SA-ren eta haren eskumendeko enpresen (aurrerantzean, CLECE) Kode Etikoaren markoan eta CLECEk delituak saihesteko ezarri zuen ereduaren parte gisa, zenbait printzipio jasoko dira jarraian, CLECE osatzen duten pertsonen jarduketa profesionala arautu behar dutenak. Horien bidez, saihestu nahi da pertsona horiek haiei edo CLECEri erantzukizun penala eragin diezaieketen jokabiderik izatea.

Ondorioz, printzipio arautzaile horiek direla medio, jarraian zehaztuko diren jokabideak izatea debekatzen da, CLECEren izenean edo hura ordezkatzuz edo CLECErentzako zuzeneko edo zeharkako onurarako izaten direnean.

## 2. Irismena

Printzipio arautzaile horiek CLECEko arlo guztietako langile denentzako dira aplikagarriak, aldi baterako enpresa-elkarteentzako (ABEE) ere bai, edozein dela beren lan-harremana, posizioa edo lanean duten tokia xedatzen dituen kontratu-modalitatea.

## 3. Printzipio arautzaileak eta jokamolde debekatuak

### 3.1. Ustelkeria saihestea enpresa lehiakorragoa eta jasangarriagoa izateko, gizarte bidezkoagoa sortzen laguntzeko ez ezik.

Horrekin lotuta, debekatuta daude honako xede hauek dituzten jokamoldeak:

- Transakzio ekonomiko batean, CLECEri bidegabe laguntze aldera, kontraprestazio gisa justifikaziorik gabe edozer abantaila edo onura ematea beste entitate edo enpresa bateko agente komertzialei, administratzaileei, zuzendariei edo enplegatuei.
- Transakzio ekonomiko batean, kontraprestazio gisa beste enpresa edo entitate bati eskatzea justifikatu gabeko edozer abantaila edo onura, edo hark eskainita onartzea, entitate horri bidegabe laguntzeko eta beste enpresa batzuei kaltetzeko.
- Dohain edo ordainsari bat eskaintzea edo ematea edozein agintariri edo funtzionario publikori bere funtzio publikoak bete ditzan edo bete ez ditzan, kontratu bat mantentzeko edo CLECEren alde etekinik ateratzeko.
- Edozer motako dohain edo ordainsari bat jasotzeko agintari edo funtzionario publiko batek eginiko eskaerari erantzutea, hark bere funtzio publikoak bete ditzan edo ez ditzan edo CLECEren alde etekinik ateratzeko.

- Funtzionario publiko edo agintari batekin harreman pertsonala izanez gero, haren gain eragina izatea norberarentzako edo CLECErentzako ebazpen onuragarria eskuratzeko.
- Promes eginiko dohainak edo bestelako ordainsariak onartzea edo eskatzea funtzionario publiko bati eragiteko, eta, horrela, aldeko ebazpen bat eskuratzeko, norberarentzako edo enpresarentzako zuzeneko edo zeharkako etekin ekonomikoa dakarrena.
- Nazioarteko jarduera ekonomikoetan, CLECEri onura ekartze aldera, edozer onura edo abantaila eskaintzea edo ematea bidegabe, atzerriko agintari edo funtzionario publiko bat erosteko.
- Dohainak edo promesak eskatzea norbaitek lehiaketa edo enkante publiko batean parte har ez dezan edo eskaintzaileak lehia edo enkanteetatik urruntzen saiatzea mehatxuen, dohaintzen edo promesen bidez.

### 3.2. Mauletan, kapitalak zuritzeetan, zigortzeko moduko kaudimengabezetan edo faltsutze delituetan parte hartzea edo horiek estaltzea edo ukatzea joko-arau garbiak ziurtatzeko.

Printzipio horren arabera, jokamolde hauek debekatuta daude:

- Hirugarren pertsoneri iruzur egitea, ondarea emateko ekintza bat egin dezaten (dirua eman, ordainketa bat egin, etab.) beren kalterako edo hirugarren baten kalterako, CLECErentzako onura edo etekina lortze aldera.
- Ondarea emateko edo enpresa bati obligazioak eragiten dizkion edozer ekintza egitea, enpresaren ondasunak murrizteko edo ezkutatzeko joera duena, erantzukizun zibilak ez ordaintzeko xedez, edo enpresako hartzekodunen aurkako enbargo bat zailtzeko edo galarazteko xedez.
- Enpresaren ondasunak, lehiaketa-prozesu batean barne hartu direnak, ezkutatzeko edo suntsitzea; diru-transferentziak edo ondare-aktiboak egitea, edo zordunaren ondare-egoerarekin proportziora gordetzen ez duten zorrak hartzea; edo zerbitzuak saldu edo egitea eskuratzeko edo produkzio-kostua baino prezio txikiagoarekin, ondare-kaudimengabeziako egoeran egonik edo laster egongo bada.
- Enpresaren kontabilitatean irregulartasunak egitea, kontabilitatea ez egitea edo kontabilitate bikoitza egitea, eta enpresak derrigorrez gorde behar duen dokumentazioa ezkutatzeko edo suntsitzea, ondare-kaudimengabeziako egoeran egonik edo laster egongo bada.
- Ondasunak eskuratzeko edo transmititzeko eragiketetan edo transakzioetan parte hartzea jakinda horien jatorria delituzko ekintza bat dela, legez kanpoko jatorri hori estaltzeko.
- Kreditu- edo zordunketa-txartelak eta bidaiatxekeak faltsutzea edo faltsuak direla jakinda erabiltzea edo txanpon faltsuak banatzea.
- Datuak faltsutzea edo simulatzea fakturretan, ordainagiritan, kontratuetan edo hirugarren pertsoneri eragiten dieten CLECEren beste edozer dokumentutan.
- Dohaintzak edo ekarpenak egitea alderdi politikoei.

### 3.3. Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak saihestea diru-kutxa publikoa eta oinarrizko zerbitzuak mantentzeari laguntzeko.

Printzipio hori betetzeko, debekatuta daude honako xede hauek dituzten jokamoldeak:

- Tributurak, atxikitako kantitateak edo atxiki behar zirenak edo konturako sarrerak ez ordaintzea Ogasun Publikoari.
- Ogasun Publikoaren aldetik itzulpenak edo zerga-onurak jasotzea bidegabe.
- Gizarte Segurantzaren kuotak ez ordaintzea edo horien itzulpena behar gabe jasotzea, edo kenkariak bidegabe izatea.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak eskuratzea norberarentzako edo enpresarentzako, edo horien luzapena lortzea, jakinarazi beharreko egitateak simulatuz edo ezkutatuz.
- Administrazio publikoen diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak faltsutzea edo esleipena galarazi zutenak ezkutatzea.
- Kontabilitatea, zerga-liburuak edo -erregistroak egiteko betekizuna ez betetzea edo kontabilitate ezberdinak izatea jarduera edo ekitaldi ekonomiko baterako.
- Derrigorrezko liburuetan negozioak, eragiketak edo transakzio ekonomikoak ez idaztea, edo zifrak faltsuak idaztea edo, oro har, kontabilitateko gezurrezko idazpenak egitea.
- Ikuskapen-jarduerak oztopatzea.

### 3.4. Teknologia berriak ongi erabiltzea, jabetza intelektuala eta industrial, kontsumitzaileak eta gizabanakoen intimitatea errespetatuz, berrikuntzarekin eta garapenarekin dugun konpromisoa nabarmentzen duena.

Teknologia berriak egoki eta errespetuz erabiltzeko, debekatuta daude jokamolde hauek:

- Beste pertsona baten intimitatea urratzea edo isilpeko informazioa deskubritzea gutunak, mezu elektronikoak edo bestelako dokumentu edo efektu pertsonalak ikusiz, pertsonaren baimenik gabe.

- Pertsonaren baimenik gabe eskuratutako informazio pertsonala hedatzea edo argitara ematea edo euskarri informatikoetan jasotako datu pertsonalak erabiltzea edo aldatzea, eragindako pertsonaren baimenik gabe, eta, ondorioz, bere intimitatea urratzea.
- Edozer baliabideren bidez, obren edo produktuen jabetza intelektuala eta industrialaren eskubideak urratzea, obra horiek erreproduzitzen, kopiatuz edo plagiaturaz edo Espainiako lurraldean fabrikaturaz, inportaturaz, edukiz, erabiliz edo sartuz, titularraren baimenik gabe eta hark erregistroa ezagutu gabe.
- Softwarea kopiatzea (programak, sistema eragileak, etab.), Internetetik fitxategiak deskargatzea baimenik edo lizentziarik gabe edo webean argitaratzea legez kanpoko deskargak egiteko web-estekak.
- Ekipoen, sistemen edo bertan jasotako informazioen segurtasuna arriskuan jartzea.
- CLECEren edo hirugarrenen baliabide teknologikoak eta informazioa gordetzeko segurtasun-neurriak erabilezin bihurtzea edo haustea.
- Besteen programa edo sistema informatikoak aldatzea, ezabatzea edo blokeatzea, CLECEren edo hirugarren baten sistemak erabiliz.
- Enpresa-sekretu bat aditzera ematea hura gordetzeko lege- edo kontratu-betekizuna izanik, informazioa legezkoa edo legez kanpoko denik jakinda edo ez jakinda.

### 3.5. Ingurumena eta ingurua babestea eta kontserbatzea aukerez betetako etorkizuna ziurtatzeko.

Printzipio hori betetzeko, debekatuta daude honako xede hauek dituzten jokamoldeak:

- Ingurumena kaltetu ahal duten (atmosfera, zorua edo zorupea, lurreko edo lur azpiko ura, itsasoa edo itsas zabala) jarduerak egitea, hala nola, emisioak, isuriak, zaratak, gordailuak eta abar.
- Hondakinak jasotzea, garraiatzea, eraldatzea, desegitea edo aprobetxatzea, edo jarduera horiek egoki ez kontrolatzea edo gainbegiratzea, eta, horien ondorioz, ingurumena kaltetzea edo pertsonen heriotza edo lesio larriak eragitea.
- Airearen, uraren, zoruaren, animalien, landareen edo pertsonen kalitatea kaltetu ahal duten jarduera arriskutsuak egiten diren instalazioak ustiatzea.
- Legeak edo administrazioak aitortuta paisaia-, ekologia-, arte-, historia- edo kultura-balioa duten zoruetan hirigintzako, erakuntzako edo eraikigintzako obrak egitea baimenik gabe.

3.6. Gizakien salerosketa, droga-trafikoa, adingabeak galbidean jartzea edo atzerriko biztanleen aurkako delituak ukatzea, pertsonak garen heinean, gure duintasuna handitzen duena.

Printzipio horren arabera, jokamolde hauek debekatuta daude:

- Aireportuetan, portuetan eta mugako eremuetan pertsonen sarrera, igarotzea, lekualdatzea edo harrera erraztea pertsona horiek (nazionalak edo atzerritarrak) indarkeria, larderia edo iruzurrak jasan dituztenean ustiapen-xedeekin.
- Edozer baliabideren bitartez, haurren pornografia ekoiztea, saltzea, hedatzea edo erakustea, bai eta babes berezia behar duten pertsona desgaituena ere, edo xede horietarako edukitzea edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez material mota horretara sartzea.
- Drogen, estupefazianteen edo substantzia psicotropikoen kontsumoari tarifak ezartzea edo laguntzea, enpresaria, fakultatiboa, gizarte-langilea edo -hezitzailea izanik, lanpostua, lanbidea edo ogibidea betetzean (fakultatiboak dira medikuak, psikologoak, osasun-titulurik duten pertsonak, albaitariak, farmazeutikoak eta horien mendekoak).
- Europar Batasuneko estatu batekoa ez den pertsona bati laguntzea Espainiako lurraldean sartzen edo bertatik igarotzen, eta, ondorioz, atzerritarrak sartzeari edo igarotzeari buruzko legea urratzea.

### 3.7. Langileen eskubideak errespetatzea, CLECEn pertsonen dutelako lehentasuna.

Jokabide hauek debekatuta daude:

- Irizur eginez edo behar-egoera batetik probetxu ateraz, langileei lan-baldintzak edo segurtasun sozialeko baldintzak inposatzea, legezko lan-xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo kontratu indibidualaren bidez aitortu zaizkien eskubideei kalte egiten dietenak.
- Lan-baimenik ez duten herritar atzerritarrei edo adingabeei lana ematea.
- Askatasun sindikala edo greba egitekoa galaraztea edo mugatzea engainu bidez edo behar-egoera batetik probetxu ateraz, edo beste pertsonen durrigorritzea greba bati hasiera edo jarraitasuna ematera.
- Langileei ez ematea beren lana segurtasun eta higieniko neurriekin egiteko behar dituzten baliabideak, eta, ondorioz, beren bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arriskuan jartzea.
- Pertsona bat diskriminatzea honako arrazoi hauek direla medio: ideologia, erlijioa, sinesmenak, arraza, nazioa, sexua, orientazio sexuala, familia-egoera, gaixotasuna, minusbaliotasuna, langileen lege- edo sindikatu-ordezkaritza izatea, enpresako beste langile batzuekin duten ahaidetasuna, Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetan hitz egitea eta, errekerimendu edo zehapenen aurrean, berdintasun-egoera ez leheneratzea.